

# MAIATZEKO LOREEN AZKENERAKO

## Kantartea

*Lorearekin biotza  
Zuri ematera,  
Umilki gatoz. Ama,  
Zure oñetara.*

Loreen erregiña,  
Amacho laztana,  
Lore danen artean  
Zu zera ederrena,  
Pozez kantari gatoz  
Guztiok zugana,  
Eskaintzen loreakin  
Biotz umill bana.

Lore gozoen billa  
Nola udaberrian  
Erleak oi dabiltzan  
Oparo zelaian,  
Gabiltza bikañenak  
Arkitu naiean  
Ipintzeko ederki  
Aldare gañean.

Azuzena, arrosa  
Eta krabeliña,  
Apaindu ezazute  
Zuen Erregiña;  
Danok artu dezagun  
Likurt usai fiña,  
Zeruetako sarjiñ  
Gozoan egiña.

Pekatuaren negu  
Beltzetik irtenik,  
Grazizko udaberrira  
Zugana etorririk,  
Maite zaitugu benaz  
Biotz biotzetik:  
¡Amacho! ez utzi gu  
Umezurtz bakarrik.

LOREDI.